

Parte-hartzea
hautzaroaren kulturatik
(bir)pentsatzen



Esku artean daukazu dokumentu hau proposamen bat da. Parte hartzearen kultura desberdin bat sustatzeko marko posible baten proposamena. Haurtzaroaren kulturatik birpentsatutako parte-hartze kultura baterako markoa. Parte Hartuz, Emagin, Joxemi Zumabalabe Fundazioa eta Oinherriko eragileen arteko erkarlanetik osatu da. Eragile hauen esperientzia eta ezagutzetatik abiatuz, gaiaren inguruan buruturiko hausnarketa baten emaitza delarik.

Baina ez da emaitza definitibo bat, praktikan esperimentatu beharreko proposamen bat baizik. Eta ondorioz, praktika horretatik aterako diren ezagutza berri, kontraesan, deserosotasun, ilusio eta bizipenetatik osatzeko asmoa daukagun proposamena.

AURKIBIDEA

0. KOKAPENA / ARRAZOIBIDEA

1. PARTE-HARTZETIK EKINTZA KOMUNITARIOA

- a. Zer da Parte-hartzea? Nola ulertzen dugu?
- b. Parte-hartzetik haratago, komunitatearen parte izatera
- c. Parte hartzean hezteak: intimitatetik komunera

2. HAURTZAROAREN KULTURA

- a. Zer da haurtzaroaren kultura?
- b. Jolasa eta inizatibaren garrantzia

3. PARTE-HARTZEA HAURTZAROAREN KULTURATIK

- a. Zergatik birpentsatu parte-hartzea haurtzaroaren kulturatik?
- b. Parte-hartzea hurrekin. Zer aldatu nahi dugu?
- c. Haurren parte-hartzea eskubide moduan sakontzeko eta zabaltzeko planteamendua

4. HAURRENTZAT PARTE-HARTZEAK DITUEN ONURAK ETA HAURREN PARTE-HARTZEAK JENDARTEAN DITUEN ONURAK

- a. Haurra subjektu politiko moduan ezaugarritu eta egituratu
- b. Parte hartzeko kultura berri bat sortu

ERREFERENTZIAK

0. KOKAPENA/ARRAZOIBIDEA

Oinheretik argi daukagu parte-hartzea dela herri hezitzaileak eraiki eta sustatzeko oinarrizko tresna. Horretan sakontzen daramatzagu 10 urte, teoria eta praktika uztartuz. Urte hauetako guztietako bizipenetatik atera ditugun ezagutzek eta esperientziak galderak, zalantzak eta kontraesanak piztu dizkigute. Horrela, azken urteetan, parte-hartzearen inguruko marko berri bat osatzeko beharra eta nahia sentitu ditugu.

Oro har, parte-hartzea esaten dugunean, parte hartzeko kultura zehatz batez ari gara, begirada jakin batetik eraiki den parte hartzeko kulturaz. Gure kasuan, helduon begietatik jardun izanaren kezka sortu zaigu; genero, arraza, nazionalitate eta klase sozial jakin batzuen begiradatik, alegia. Kokapen hori zalantzan jartzen hasi garen unean hainbat galdera hasi zaizkigu mugitzen: nola gerturatu gaitzke parte hartzeko beste kultura batzuetara? Zein desplazamendu egin behar dugu parte hartzeko beste modu batzuei leku egiteko? Nola ekar dezakegu parte-hartzearen ikuspuntu aldaketa bat gure egiteko moduetara? Nola utz dezakegu parte hartzeko beste modu batzuek kutsa gaitzaten? Nola eraiki dezakegu parte-hartze kultura berri bat haurtzaroaren kulturatik? Nola egin parte-hartzea demokratizatzailea edo eraldatzailea izan dadin?

Galdera horien bidez geure buruak berrikusteko ahaleginetan gabiltzala, gakoak iruditzen zaizkigun zenbait alderditan oinarritu gara:

Behaketa eta adi egotea

Herritarren beharrak identifikatu eta horiei erantzuna emateko asmoz, sarri parte-hartze prozesuak abiatu ohi ditugu. Prozesu horiek herritarren behar eta desiren zerrendak osatzera bideratzen dira askotan, eta parte-hartzea bera balioz husten da. Izan ere, zer behar edo nahi dugun galdetzen digutenean, gure erantzunak kutsatuta egoten dira, beharraren eta nahiaren arteko bereizketa zaila izaten baita. Gainera, mota honetako parte-hartzeetan gure nahiak eta beharrak adierazten ditugu, baina ez dugu horien gaineko ardurarik hartzen. Horrela, parte-hartzeari eraldaketarako duen indar guztia kentzen ari gara. Nola berreskuratu dezakegu parte-hartzearen zentzu eraldatzailea? Nola pasa gaitzke Olentzerori gutuna idaztetik, eskaera arduratsuagoetara?

Herritarren beharrak identifikatzeko gakoetako bat izan daiteke behaketa egitea eta oharrak hartzea, adi egonez informazio interesgarria eskuratu baitezakegu. Parte-hartzearen zentzu eraldatzailea berreskuratu nahi badugu, beharren zerrenda osatetik harago, elkar gurutzatzen garen uneak bilatu beharko ditugu, elkartu eta elkarrekin lan egiteko; zerbaiten parte izanez zerbait kolektiboa eraikitzeko.

Elkar topatu, ekiteko

Beraz, komunitatea eraikitzeko elkarrekin egoteak eta hortik ekiteak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu: behar eta nahien zerrendak osatzera bideratutako parte-hartze espazioak baino, elkar topatzeko une eta gune parte-hartzaileak sortu behar ditugu. Baina, lankidetzan espazioak eraiki eta parte-hartzea izatea nahi badugu, oinarrizko berme batzuk ziurtatu behar ditugu. Gure aldetik, argi daukagu parte-hartze prozesu bat garatzeko aurrez bermatuta egon behar diren baldintzen artean hauek ezinbestekoak direla:

- Borondate politikoa
- Teknikarien inplikazioa
- Parte-hartzaileen parte hartzeko borondatea
- Parte-hartze prozesua behar bezala garatu dadin beharrezko diren baliabideak
- Parte-hartze prozesuan adosten dena egikaritzea, aurrez mugak edota joko-arauak ondo zehaztuta

Gure herrien eraikuntzarako parte-hartzearen ikuspuntu berri bat behar dugu: parte-hartzeak sinesgarria izan behar du eta horretarako harreman eta loturetatik eraiki behar dugu. Ezinbestean, beraz, behetik gorakoa izan beharko du (eta ez alderantziz). Baina, nola egingo dugu?

Galdera andana sortzen zaigu: zein da udalen edota instituzio publikoen funtzioa? Ekintza komunitarioaz hitz egiten den honetan, zein ekarpen egiten dio ekintza komunitarioak parte-hartzea ulertzeko modu honi? Zertarako eta nola sustatu ekintza komunitarioa udalgintzatik? Beste aukera batzuei ateak irekitzeko, nola sustatu dezakegu administrazioaren lan kulturaren eraldaketa? Nola txertatu dezakegu begirada komunitarioa udalen eguneroko jardunean? Eta sailen arteko lankidetzan? Nolako antolaketa-eredua beharko genuke udaletan, modu komunitarioan harremanak izan ahal izateko?

Parte-hartzea haurtzaroaren kulturatik

Parte-hartzearen kultura berri bat sortzeko eztabaidan, gaur gaurkoz gure ekarpena parte-hartzea haurtzaroaren kulturatik birpentsatzea da. Partaidetzako mekanismoetan haurrei eta haurren egiteko moduei leku bat egitea proposatzen dugu, haurtzaroaren kultura, kultura eraldatzailea izan daitekeela sinesten dugulako.

Haurrei hitza ematean, gure herrietako subjektu parte-hartzaile moduan egituratzen eta ezaugarritzen hasten garenean, boterea lekuz aldatzeko aukera sortzen ari gara. Orain arte ikusiak eta entzunak izan ez diren ahots zein gorputzei lekua uzteko ariketa egiten ari gara. Hegemonikoa ez denari, eta, beraz, produktiboa ez denari lekua egiteak, eta bere beharretatik gure herriak birpentsatzeak, aukera berriak ireki ditzake jendarte eredu berri bat eraikitzeko.

Haurtzaroaren kultura kontuan hartzen duen parte-hartzea garatzeko, egiteko moduak zalantzan jarri behar ditugu, izan ere, haurtzaroaren kulturaren egiteko moduak ez datoz bat helduon egiteko moduekin, guztiz kontrajarriak ere izan daitezke; hor dugu erronka handiena. Prest al gaude horretarako? Gaitasuna izan badugun arren, erresistentzia askoko eremua da. Izan ere, egiteko moduak zalantzan jartzean, deserosoa den lekuan kokatuko gara, heldu bezala ditugun boterea eta pribilegioak zalantzan jarriko baitira. Motelago joan beharko dugu, malguago izan beharko dugu, sormenari lekua egin beharko diogu, ezustekorako prest egon beharko dugu... Eta argi dago ezaguna dena errazago bizitzen dela ezeguna baino. Botere eta pribilegioak interpelatzeak deserosotasuna sortzen baitu. Baina ez da nahikoa egiteko moduak aldatzea, heldu bezala dugun botereaz jabetzea ezinbestekoa da, izan ere, haurren parte-hartzeak ez badu haurtzaroaren protagonismo politikoa sustatzen, ez gara ezer aldatzen ari. Eta gogoratu dezagun eraldatzailea izan nahi duen parte-hartzeaz ari garela.

Eskuartean daukazun hau, beraz, ez da proposamen hezitzaile bat soilik. Hau proposamen politiko bat era bada. Heztea politikoa delako. Haur eta nerabeekin politika egitea iraultzailea izan daitekeela sinesten dugulako. Horretarako, administrazio publikoak herrigintzako eragileen eskutik joan behar du, halaberrez. Herri hezitzaile baterantzko bidean, hezkuntza formal, ez-formal zein informaleko eragileekin batera.



I. PARTE-HARTZETIK EKINTZA KOMUNITARIOA

a. Zer da parte-hartzea? Nola ulertzen dugu?

Egun, parte-hartzea oso zabalduta dagoen kontzeptua den arren, praktikan benetako parte-hartzea garatzea falta dela uste dugu: parte-hartze politikoa, eraldaketara bideratutakoa. Sarritan parte-hartzearen kontzeptua haurrentzako helduok pentsatu eta diseinatutako ekintza eta zerbitzuen "kontsumoarekin" lotu izan ohi da. Guk Oinherrin parte-hartzea **gizartea eraikitzeko eta bere identitatea definitzeko tresna** bezala ulertzen dugu, parte-hartzearen bidez lortu beharreko helburua argi izanik. Horretarako, beharrezkoa ikusten dugu aldaketa bat egitea: prozesuak haurrentzat egitetik haurrekin egitera pasatzea.

Parte-hartzea, gainera, eskubidea, prozesua, jarrera, harremanak eraikitzeko eta komunitatea antolatzeko modua ere badela uste dugu. Horrek jendartean modu aktiboan egotea dakar (batzea, ekarpenak egitea, konpromisoak hartzea, elkarri eragitea, eraldatzea, inplikatzeta...). Parte-hartzea nitasunetik gutasunera pasatzeko prozesu gisa ere ulertzen dugu, elkarri entzunez eta elkar aintzat hartuz, elkarren zaintzaileak izango diren komunitateak eraikitzeko tresna gisa.

Beraz, ezin da izan moda bat, kanpaina bat, interes jakin batzuk asetzeko erabiliko den estrategia bat, ekintza edo zerbitzuen kontsumo huts bat. Parte-hartze eredu berri baten beharra daukagu, azken urteetan oso modan jarri diren prozesuak gainditu, eta parte-hartzea benetan gobernantza publiko komunitario baterako tresna izatea nahi badugu. Alegia, herritarrei zer nahi duten galdetu, haien iritzia entzun, eta ardura administrazio publikoari delegatzera mugatzen den eredu alde batera utzi, eta hori gainditzen lagunduko duen eredu parte-hartzailea.

Elkarrekin herri bezala zer behar dugun pentsatzea izan daiteke horren guztiaren abiapuntua, batera eraikitzen ikasten hasteko. Hau da: zerbaitetan parte hartzetik zerbaiten parte izatera pasatzea. Horretarako, elkarlan horizontalerako metodologia berriak, espazioak eta egiturak sortzea ahalbidetu beharko dugu, komunaren logika kolektiboa berreskuratu eta erantzunkidetasuneko erabakiguneak sortze aldera. Bestalde, ezinbestekoa izango da harremanak izateko modu berriak jorratzea, loturak eraikitzea eta botere-harremanak iraultzea.

Parte-hartzea izen moduan ulertu beharrean aditz gisa ulertzen hastea proposatzen dugu, etengabeko eraikuntzan dagoen zerbait bezala. Ez baitago ongi edo gaizki egiteko modu bakar bat, egiteko modu berrietara etengabeko egokitzea baizik.

Hurrek beti parte hartzen dute; ezin dute ez parte hartu, afektuen eta gorputzaren bidezko parte-hartzea berezkoa baitute. Ez baditugu kontuan hartzen, hurrek adierazi egingo digute zer behar duten, modu batera edo bestera. Helduok ez baditugu errekonozitzen, beraiek haserrearen bidez, mugimenduaren bidez, negarraren bitartez... komunikatzen dizkigute euren behar eta nahiak. Ondorioz, beti bilatzen dute parte hartzeko modua. Horiek entzuteko eta interpretatzeko gai diren helduak behar ditugu.

Garrantzitsua da ulertzea parte hartzeko aukera ez dela nik zuri ematen dizudan zerbait, eskubide bat baizik. Norberari zor dioguna, eta elkarri zor dioguna, herrikide, bizilagun, lagun, ikaskide edo lankide bezala.

Hori guztia haurtzarora ekarrita, haurren parte-hartzea aurrerapen demokratiko soil bat da? Jendarte bat antola dezakegu, haur eta nerabeen parte-hartzerik gabe?

*** Testuan tarteka horrelako galderak sartu ditugu, gaia haurtzarora ekartzean sortzen zaizkigun deserosotasunak agerian uzteko

Beraz, jendarte justu, parekide eta bizigarriago baterako bidean, ezinbesteko baldintza gisa ulertzen dugu parte-hartzea. Zerbaiten parte izatea dakarrelako. Benetako pertenezkoa sentimendua, zerbaitetan eragin dezaketenek norbanakoen multzoak sortzen direlako. Aniztasunaren bizikidetzaren oso bat ezinezkoa izango da eraikuntza indibidualista eta lehiakorrean oinarritutako sistema baten. Komunaren logika eta lankidetzaren berreskuratuz, gutako bakoitza komunitatearen partaide sentituz, eraiki ahalko dugu aniztasunaren bizikidetzaren. Izateko askotariko moduak, maila berean baina milaka formetan, partaide izango diren eraikuntza sozialak eraikitzen.

b. Parte-hartzerik haratago, komunitatearen parte izatera

Parte hartzeak zentzua izan dezan, komunitatean eragin bat izan behar du, halaberharrez. Iritzia emateaz haratago; elkarrekin komunitatea egitera pasaz, delegatzerik ardurak hartzera. Erantzunkidetasuneko harreman publiko komunitarioak eraikiz.

Hau haurtzarora ekarrita, hurrek gure komunitateetan zein leku daukate? Zein ardurak? Erantzunkidetasunean hezten ditugu?

Elkar topatzeko lekuak eta azpiegiturak, harremanak izateko momentuak, eta sortzeko egitasmoak, uneak eta guneak sustatu behar ditugu. Berauetan parte hartzen dugunean, loturak sortzen joateko. Elkartu eta egoera edo

behar bat elkarbanatzen dugula sentitzen dugunean hasten garelako gure egoera edo behar hori kolektibizatzen, politizatzen, eta, ondorioz, komunitatea kohesionatzen, saretzen.

Haur eta helduek partekatzen dituzten zein espazio/azpiegitura dauzkagu herrietan?

Honetan guztian, tokiko administrazio publikoaren zeregina argia da: erraztasunak ematea. Egin nahi duen jendarteari egiten uztea; antolatu nahi duenari eskuragarri jartzea antolaketarako erraztasunak, baliabideak, dirulaguntzak eta beste; jendartearen antolaketara kolektiborako nahi hori oztopen gabe edo ordezkatu gabe. Izan ere, gaur egungo joera da administrazio publikoan delegatzea komunitateak bere gain har ditzakeen hainbat zeregin/funtzio/ardura. Eta hori oso arriskutsua da, komunitatea desegitea ekartzen baitu.

Nola egin haurrak ez ordezkatzeko? Haurren bidelagun izateak zer esan nahi du? Haurren komunitatea egituratuta dago kolektiboki gure herrian?

Erraztaile lana nahikoa ez den kasuetan, komunitatea oso indibidualizatuta dagoen eremuetan, administrazio publikoak rol eraikitzaileago bat izan dezake, auzokideen arteko lotura horiek sortzen hasteko inizatiba hartuz. Baina inoiz ez luke rol ordezkatzailerik hartu behar.

Zenbat aldiz ordezkatu izan ditugu haurrak, haien hobe beharrez?

Administrazio publikoak arlo guztietan gehitu beharko luke begirada komunitarioa edo parte-hartze politikoa. Hezkuntzan, herri hezitzailearen filosofiaren bidez, komunitatearen ardurak partekatzen ari garen moduan; begirada komunitario hori osasungintzara, hirigintzara, gizarte zerbitzuetara... hedatu nahiko genuke. Arlo horiek guztiak komunitatea saretzera, loturak sortzera eta saretzera bideratuta egotea nahiko genukeelako.

Horretarako, herrietan, egunerokotasunean elkartzeko gertuko topalekuak sustatu behar ditugu. Eta herritarrek zerbitzu publikoetan nola artatzen ditugun birpentsatu nahi genuke, loturak eraikitzeko zer egin dezakegun pentsatu. Topaleku horietara gerturatzen ez diren herritarrengana nola gerturatu gaitzkeen pentsatu, haien bila atera; ez baita nahikoa ateak irekita izatea bakarrik. Herriak zerbitzu-emate moduan baino, zaintzaile moduan irudikatzen hastea garrantzitsua da. Zaintza hezitzailea delako, eta hezkuntza zaintza delako. Elkar zaintzen duten herritarrek, hezten duten herriak eraikitzeko. Komuna den hori zaintzeko eta eraikitzeko ardurak berrartzea dagokigu, herritar zaintzaile eta hezitzaile moduan.

c. Parte-hartzean heztea: intimitatetik komunera

Haurren kasuan, hau oso nabarmena da. Haurrak gure jendartean subjektu politiko moduan antolatu gabe daudenez, helduok errazegi hartzen dugu haien ordezkarien rola. Haurren eskubide guztiak haurren kontrol- eta babes-neurrietan oinarrituz eraiki dira; eta helduon beldurrek, haurrak babestu behar horrek, subjektu pasibo bilakatzea eraman ditu. Ondorioz, proposatzen dugu haurren parte-hartzea, haurrei subjektu politiko moduan autoantolatzen laguntzera bideratuta egotea. Horrela, haurrak komunitatearen parte aktibo bilakatuko dira. Argi izan behar dugu, ordea, haurren begirada ez dela helduona baino hobea edo

okerragoa. Hurrek helduon asimetriari eta bestelako joerak birstortzen dituzte, eta gizartearen parte diren neurrian, ikusten dutena islatzen dute.

Haurra subjektu politiko moduan eraikitzeko, haurra bere bizitzari buruz erabakiak har ditzakeen eta bere ingurunean eragin dezakeen gaitasundun gizarte-aktore bat dela aitortu behar dugu. Hurrek komunitatearen bizi esperientzian paper aktiboa izateko, hainbat planoetan eragitea proposatzen dugu, intimitatetik hasi eta komuna den horretaraino. Zehazki, hiru plano dira: familia, eskola eta herria. Eta hiru planoak ez badira modu koherente batean lantzen, hurrek ez dute partaidetza-esperientzia esanguratsurik izango haurtzaroan.

1. Familian: eremu intimo honetan, haurren hasierako urteetan parte-hartzea lantzea oso garrantzitsua da. 0-6 adin tartean haurren parte-hartzeak lotura zuzena du haren ekimena, erritmoa, ezetz esateko eskubidea eta heterogeneitatea



errespetatzearekin. Parte-hartzearen esperientzia gorputzean bizitzen bada txikitatik, benetako beharrei lotuta, intimitatearen parte sentitzen ikasten dute. Helduon ardura da haurren ongizatea bermatzea, baina hori bi modutara egin dezakegu: modu autoritarioan, ala modu parte-hartzailean.

2. Eskolan: familiaren intimitatean bizi izandako parte-hartzeak eskolan jarraipena badu, bigarren sozializazio parte-hartzailea izango du haurrak. Intimitatetik sozialerako jauzi horretan ere, taldearen partaide sentituko da. Horretarako, eskolaren helburuaz eta egitekoaz hausnartu behar dugu; eta hezkuntzan erabiltzen ditugun metodologia, tresnak, komunikazio-eredua eta beste berrikusi behar ditugu.

3. Herrian: komuna den espazio horretara jauzi egiteko ordua iristen zaienean, haurrak herriaren parte sentitzen badira, herritar sentimendua garatuko dute. Herriakeuren nahiak eta beharrak asetzeko aukerak eskaintzen badizkie eta, komunaren eraikuntzan partaide sentitzeko aukerak badituzte, gai izango dira intimitatean gorputzean bizitako esperientzia parte-hartzaileak arlo komunean aplikatzeko.

Garrantzitsua da ulertzea zein garrantzitsua den hiru arloetan eragitea. Haurren garapenean gakoak diren hiru planoetan antzeko mezua helaraztea. Intimitate parte-hartzailea izateak parte-hartze komunerako baldintzak sortzea bermatuko du, eta intimitatean bizipenezko parte-hartzea bizitzea garrantzitsua izango da parte-hartzean hezteko.

Parte-hartzean heztea, intimitatetik komunera doan prozesu horretan, guztiz bat dator ahalduntzearen teoria

psikosozialarekin. Ahalduntzeak hiru dimentsio ditu: norbanakoarena, taldekoa eta komunitarioa. Norbanakoaren ahalduntzeaz ari garenean, norbera gai izateaz ari gara, eta norberak zenbat eta gaitasun gehiago duela sentitzen duen heinean, zerbaitetan ekiteko motibazio gehiago lortzeaz. Hori kontuan izanik, hurrek intimitate parte-hartzailean garatuko lukete ahalduntzearen dimentsio hori. Taldeko ahalduntzea eskolan gertatzen dela esan daiteke. Norbanako moduan gure antzeko testuingurua duten beste haur batzuekin batera parte hartzen dugu, elkarrekin komunak zaizkigun erronkei aurre egiten ikasiz, talde moduan ahaldunduz, baina norbanako moduan ahalduntzen jarraituz ere bai. Azkenik, ahalduntze komunitarioa gertuko edo egunerokotasuneko lurraldea habitatzen duten komunitatean garatzen da haurrengan. Herrian askotariko arloetan parte hartuz eta bizi-erperientzia esanguratsuak biziz komunitatea osatzen duten gainontzeko agenteekin. Hori horrela, parte-hartzearen bidez, haurrak ahalduntzea lortuko genuke, eta aukerak emango genizkieke beren burua antolatzeke eta mundua aldatzeko baliabideak eskuratzeko.

2. HAURTZAROAREN KULTURA

a. Zer da hartzaroaren kultura?

Hartzaroaren kultura pentsamendu- eta praktika-lerro bat da. Hartzaroaren kulturaz hitz egiteak, lehenik eta behin, zera onartzea dakar: hurrek euren modu etiko, konnotatibo, sinboliko, estetiko eta poetikoa dutela mundua ikusteko, eta gai direla euren bizitzari eta existentziari zentzua ematen dioten hipotesiak, teoriak eta metaforak eraikitzeko.

Hartzaroaren eremuez hitz egiteak hartzaroaren kulturaren eta jolasaren eraginkortasuna eta beharrezkotasuna aitortzea dakar berarekin. Hartzaroak jatorrizko iruditeria kultural bat duela aitortzen ez duten helduek ez dituzte errespetatzen ez hartzaroaren kulturarako eta ez jolaserako eskubideak.

Hartzaroaren kulturaz hitz egiteak esan nahi du hartzaroaren gaitasunak eta ahalmenak ulertzea eta aitortzea. Haurrak gaitasunak ditu, erabakitzeko gaitasuna du, ekimena du, harreman afektiboak gauzatzeko gaitasuna du, ezagutza eraikitzen du, eta nortasuna eta kultura ere garatzen ditu.

Loris Malaguzzi pedagogoaren ideietan oinarriturik, horrela laburbil daitezke gaitasun eta ahalmen horiek: haurra eraikitzailea da besteekin batera, interakzionista da, ekologikoa –harreman soziokultural askotarikoen bidez eraikitzen du bere burua–, genetikoa –ahalmen handiko izakia da haurra, baina, aldi berean, haren heltze-erritmoa eta aurretik igarri ezinezko garapena errespetatu behar dira, estimulazio goiztiarreko programekin behartu gabe–; konplexua, baikorra eta zalantza da; haurra gai da bere bilakaeraren bidea jorratzeko, autonomia, ekimena eta erantzukizuna izateko; solidarioa da, aktiboa, parte-hartzailea; eta bere bizitzari zentzua emateko eta gizateriari itxaropena ekartzeko gai da. Ume bakoitza gizaki berezi, konplexu eta bakarra da.

Malaguzzik dio bizitzako lehen unetik haurra eraikitzailea dela besteekiko harremanean. Alegia, bere bizitzaren, ezagutzaren, kulturaren eta nortasunaren eraikitzaile aktiboa dela, inguruarekin eta inguruan dituenekin harreman etengabea. Jaiotzaren unetik gara gai eraikitzeko eta egiteko, ez da gerora, helduaroan, agertzen den gaitasun bat. Horregatik, gizarteko kide aktibo gisa ulertu eta onartu behar da.

Malaguzziren hitzetan, “gaitasunetan aberats, indartsu eta boteretsu” izaten laguntzea da kontua. Haurra horrela irudikatzen du: mundua esperimendatzen duen ume bat, munduaren parte sentitzen dena jaiotzen den une beretik, jakin-minez beteta dagoena eta bizitzeko gogoia duena; komunikatzeko desira eta gaitasuna lehen egunetik dituen, bere burua kokatzeko mapa sozial, kognitibo, afektibo eta sinbolikoak eraikitzeke gai dena.

Horregatik, Malaguzzik haurrak eta helduak bilduko dituzten elkarguneak sortzea proposatzen du, kultura eta jakintza lankidetzan sor ditzaten. Hori posible izateko, onartu beharra dago haurrak ahots propioa duela, eragile soziala dela eta bere bizitzaren eraikitzaile dela; baina, aldi berean, bere inguruan bizi direnen eta, oro har, bizi den gizartearen eraikitzaile ere badela. Haurrak, izaki soziala den heinean, tribuaren parte sentitu nahi du.

Argi utzi nahi dugu, haurtzaroaren kultura bat existitzen bada ere, ez dagoela haurtzaro ‘natural’ edo unibertsal bat, ez eta haur ‘natural’ edo unibertsal bat ere. Haurrak daude, eta haurtzaro mota asko dago. Haurtzaroan adinaren aldagaia ez delako bakarra. Izan ere, arrazak, generoak, klase sozialak, nazionalitateak eta bestelako aldagai askok, eta euren arteko gurutzaketek, haurtzaroak baldintzatzen dituzte.

Haurtzaroa denboran zehar garatu den eraikuntza sozial bat da. Haurrak heldu txiki moduan ikusi izan dira, menpeko haurtzaroaz hitz egin izan da, haurrak lanerako tresna moduan erabiliak izan dira... Haurtzaroaren kontzeptua historian zehar aldatzen joan da: munduko leku eta garai ezberdinetan haurtzaroari buruzko ikuskera ezberdinak garatu dira. Haurtzaroa, beraz, oso esperientzia ezberdina izan daiteke jaio zaren garaiaren edo munduko txokoaren arabera.

Haurtzaroaren eraikuntza sozial modernoa, eskolaren erakundearen ondorioz garatu zela esan genezake. Hezkuntzarekiko jarrera-aldaketa baten ondorioz, haurrak lanbide eta trebetasunak ikastetik, zuzenean etxeko helduengandik ikaskuntza teorikoagoa jasotzera igaro ziren. Orduan beharrezkoa zen haurrak instituzioetara joatea eta euren eguneroko bizitza berezia izatea. Haien garapenarekiko jarrera sozialak eta ikaskuntza neurri batean horrela sortu zen. Adierazpen indibidualaren eta askatasunaren inguruko eskubideen lanketak ere lagundu zuen haurraren inguruko ideiak garatzen.

Gainera, haurtzaroa bizitzako fase berezi gisa garatu zen, aldaketa politiko eta sozial konplexuen ondorioz. Familiak txikiagoak eta nuklearragoak bihurtu ziren, eta orduan, eskolek adin-talde berezietan kokatu zituzten haurrak. Horren ondorioz, haurtzaroa bizitzako etapa propio gisa ulertzeaz gain, bere baitan ere etapa anitz dituen garai baten gisa ikusten hasi ziren. Horrela, azpi-talde berezituak eraiki dira: haur txikiak, umeak, nerabeak, gazteak.

Munduko garai eta leku ezberdinetan haurtzaro erabat desberdinak garatzen badira ere, haurtzaro “ona” haurra bere gaitasun guztiekin onartzen duena da, eta gaitasun horiek garatzea bultzatzen duena. Haurrari haur izaten uzten diona. Baina hori ezinezkoa izango da, haurren eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta osasun arlokoak bermatu ezean. Haurtzaro “ona”, beraz, haurraren ongizate integrala bermatzen duena izango da, hau da, elikadura osasungarria ziurtatzen duena, kalitatezko hezkuntza eta osasungintzarako sarbidea ahalbidetzen duena, komunitateko erabakietan parte hartzea ahalbidetzen duena... Alegia, haurtzaroa gurutzatzen duten aldagai horiek guztiak kontuan izango dituen.

b. Jolasa eta inizatibaren garrantzia

Haurren jarduera nagusia jolastea da, eta hori da haurtzaroaren kulturaren funtsa. Jolasa jarduera liluragarria da. Inor jolasean ikusten dugunean, hunkitu egiten gara, jakin-mina pizten zaigu, eta dibertsioa eragiten digu.



Izan daiteke iradokitzen duen misterioarengatik, beste kode bat eskatzen duelako; izan daiteke behatzaileari haurtzaroko oroitzapenak ekartzen dizkiolako; izan daiteke ustekabea eta barregura eragiten dituelako.

Egun gure herriko haurrek zenbat denbora daukate jolasteko? Denbora horren kalitatea nolakoa da? Haur batek jolasten pasatzen duen denborak zer nolako prestigioa du?

Francesco Tonucci pedagogo italiarrak esan ohi duenez, jolasak berebiziko garrantzia du. Munduaren konplexutasunaren aurrean jartzen da haurra, mugarik ez duen jakin-minarekin, dakienarekin eta ez dakienarekin. Eta baita jakin nahi duenarekin ere. Baldintza batzuen barruan, askatasunez aritzen da jolasean, egin ezin duena asmatu egingo duelako. Jolas espontaneo eta bat-batekoa, haurraren iniziatibatik abiatzen dena, helduen ikerketa zientifikoaren, arte sorkuntzaren edo mistikaren parekoa da. Jolastea denbora galtzea da, eta denbora galduz bihurtzen gara heldu. Jolastea denboran galtzea da, eta munduarekin topatzea. Jolastea gozamena da, eta, horregatik, jolasean dabilen umea jateaz ere ahaztu egiten da.

Hala ere, lilura hori bera da, neurri batean, jolastearen ekintzak berarekin dakarren mespretxuaren erantzule; izan ere, jolastearen irudi erromantikoa, idealizatua eta esentzialista ematen da sarri, eta horrek jolasaren ezaugarrien eta motibazioen ulermen zorrotz eta kritikoa eragozten du. Horren ondorioz, jarrera ironikoa hartzeko, barregarri uzteko eta mespretxurako arrazoi bilakatzen da jolasa bera, baita jolasten ari dena ere. "Beste egitekorik ez edukitzea" leporatzen zaio jolasten ari denari, jolasa funtsezko ez den zerbaitekin eta nagikeriarekin lotuz.



Jolasa haurrak mundua behatzeko eta mundua eraikitzeko daukan modua da. Baina jolasa zer da? Jolas guztiak jolas al dira? Françoise Dolto psikoiatistak dio "jolasa askatasunez arriskatzeko gozamena" dela. Jolasak, jolas izateko, askea izan behar du, eta arriskuak hartzeko eta bizitzeko aukera eman behar du. Bestela, ez da jolasa, errituen errepikapen bat da. Akuria, gurpiltxoan sartuta, jirabiraka. Baina gaur egun nolakoa da jolasa oro har? Arautua, arriskurik gabea, kontrolatua, zaintzapekoa, dibertsiorik gabea... Eta jolasa, arriskurik gabe, oso arriskutsu bilakatzen da.

Hala ere, jolasak ezin du guztiz askea ere izan. Hori utopia bat da. Izan daiteke askeagoa, baina beti egongo da baldintzatuta, espazioak, materialek... baldintzatuta. Bilatu nahi duguna jolas espontaneo da, helduok probokatu gabe sortzen den hori, haurraren iniziatibatik sortzen den hori. Eta, jakin badakigu, jolasari muga gutxien ezartzen dizkion espazioa natura dela, aire libreko jolasa (Kati Agueso).

Gure herriek zein espazio eskaintzen dituzte bat-bateko jolaserako (jolas espontaneorako)?

Haurren parte-hartzea, haurrei haur izaten uztean oinarritzea proposatzen dugu Oinherrietik. Kultura helduzentristatik mugatu gabe. Bereziki 0-12 adin

tartean, haurren beharrak eta erritmoak kontutan hartzen dituen jendarte bat eraikitzea izango litzateke gakoa. Jakinda egungo sistema merkatuaren eta produkzioaren logiken arabera antolatzen dela, eta horrek talka egiten duela haurtzaroaren kulturaren ezaugarri garrantzitsuenekin.

0-3 adin tartean, esparrurik intimoenean, haurren gertueneko sozializazio gunean sustatuko dugu parte-hartzea. Ondoren, 3-6 urte bitartean eskolaratze garaian, bigarren sozializazioan jarraipena emango diogu, eta azkenik, 6-12 urte tartean, haurren parte-hartzeak herrira jauzi egingo du, eta herria modu autonomoan bizitzearekin zuzenki lotuta egongo da.

Hiru parte-hartze esparruetan helduok izan beharreko presentzia ondo definitzea garrantzitsua da. Helduok hiruetan egon behar dugu presente. Presente buruz eta gorputzez, baina haurrekiko menpekotasunik sortu gabe; helduaren presentziaren beharra sortu gabe, baina hor egonik. Intimitatean gertuko familia izango da presente dagoen heldu hori, eskolan hezkuntza komunitatea osatzen duten helduak, eta herrian, herritar guztiak (dendariak, udaltzainak, tabernariak, postaria, alkatea, ludoteka/gaztelekuko hezitzaileak...).

Hiru esparruetan presente egongo diren heldu horien zeregina izango da haurren parte-hartzea sustatzea. Eurekin elkarrekintzan, loturak sortuz eta haurrek adierazten dutenaren atzean gordeta dauden benetako nahi eta beharrak identifikatzen lagunduz. Gero hortik, helduek eta haurrek elkarlanean herrian eraldaketak eragiteko.

Haurrak ingurumen adierazle sentikorrek dira. Espazio komuna autonomoki bizitzeko aukerarik ez badaukate, herria gaixo dagoen seinale izaten da. Herriak eralda ditzakegu, haurrak berriro autonomoki herritik ibiltzeko baldintzak sortuz, haurrek herrian protagonismoa hartuz, kaleak jolaserako berreskuratuz. Eta hori guztia eurekin egin dezakegu, herriko erabakietan euren parte-hartzea bermatuz.

“Jolastera bideratutako denbora gure bizitzako garrantzitsuena da. Itzuli haurrei denbora librea, berriro kalean heldurik gabe jolasteko aukera, eta orduan hiria berriro suspertuko da” Francesco Tonucci

Autonomia falta oso kostu handia da, ezin dutelako zentzugabekeriarik egin. Eta txikitan txorakeriarik egiten ez badute, ezin dute transgreditu. Gainera, ez dute autorregulatzen ikasten, ez dute arriskua eta arriskubidea bereizten ikasten. Ez dute arriskuaren maila neurtzen ikasten, eta ezin dute seguru arriskatzen ikasi. Eta haurtzaroan hori egitea funtsezkoa da, bestela nerabezeroan dena korapilatzen baita.

Ondorioz, haurtzaroaren kultura errespetatzeko eta hezitzaileak izateko asmoa duten herriek jolaserako espazioak eta denborak eskaini beharko dituzte. Eta haurren presentzia autonomoaren bidez, herria eraldatuz, gainontzeko herritar guztientzako bizigarriagoak izango diren herriak eraikiko dituzte.

Baina hori guztia lortzeko, neurri deserosoak hartu behar dira. Izan ere, horrek eskatzen du orain arte herrian eroso bizi den kotxedun langile produktibo horri boterea kentzea. Jendarte helduzentrista batean bizi gara, eta heldua interpelatu ezean ezinezkoa izango da haurrei eta euren beharrei lekua egitea.

3. PARTE—HARTZEA HAURTZAROAREN KULTURATIK

a. Zergatik birpentsatu parte-hartzea haurtzaroaren kulturatik?

Haurrak ematen digulako jendartearen txikitasunaren neurri politikoa. Tonuccik dioen moduan “haur batentzat ona dena, jendarte osoarentzat ona izango da”. Haurrei hitza ematea eta eurei entzuten ikastea, beraz, aldarri politiko bat izan daiteke, umeak subjektu aktibo eraikitzaile bihurtzeaz ari baikara; subjektu politiko bihurtzeaz, alegia.

Horrek, ezinbestean, heldukrazia interpelatzera garamatza. Izan ere, jabetu behar dugu heldukraziak haurtzaroa bazterreko agente gisa kokatzen duela eta horrek eskubide zapalkuntza dakarrela.

Bizi garen jendartea helduzentrista da, eta bertan haurra bazterreko subjektua da. Kolektiboki deseraikita dauden agenteak izanik, haien beharrak, nahiak, desirak kontuan hartzeko baldintzak sortzea eta eskubide osoko herritarrak direla aldarrikatzea dagokigu orain.

Umeak kontuan izan gabe nola antola daiteke ezer eurentzat? Ze leku egin nahi diegu umei gure jendartean? Ze parte-hartze eremu ukatzen diegu? Umeak ukatzean zer ukatzen diegu geure buruari eta jendarte-ereduari? Etorkizuna ez badugu orain eta hemen lantzen, non geratzen da?

Orain kendu ume hitza eta jarri “ni” eta “zu”, ondoren “gu”, eta “komunitatea” hurrena. Gutaz ari gara finean, gugintzaz. Helburua da bestelako komunitate bat eraikitzea, komunitateak biziberritzea, haurtzaroaren kulturatik eta parte-hartzearen bitartez.

Izan ere, haurren pentsamendua, pentsamendu disruptiboa da, iraultzailea izan daiteke, eraldatzailea izan daiteke. “Ez dakite guk baino gehiago, beste gauza batzuk dakizkitez” (Francesco Tonucci).

Izan ere, begirada metro eta erdira jaistea, heldu moduan desboteretzearekin lotuta dago; produktiboa ez den herritarrari eta bere beharrei lekua egiteak aukerak sortzen ditu gure herriak eta bizitzeko moduak, merkatuarenak ez diren beste logika batzuen arabera birpentsatzeko.

Parte hartzeko eredu berri bat birpentsatzerakoan ere hemendik birpentsatu nahi dugu, beraz; haurra elkarrekintzan subjektu aktibo ekintzaile eraikitzaile batekin. Bazterrean kokatuta dagoen subjektu politikoa. Parte-hartzearen bidez, bazterreko subjektu bati lekua egiteaz ari gara. Eta ariketa hau egitea onuragarria izango da bazterreko beste subjektu batzuentzat. Parte hartzeko bestelako kultura bat sustatzeak bestelako ahots/gorputz batzuentzat erosoagoa/irisgarriagoa izatea ekar dezake.

b. Parte-hartzea hurrekin. Zer aldatu nahi dugu?

Orain arte aipaturiko guztiarekin ados egonik ere, bizi garen jendarte helduzentrista honetan oraindik pauso asko dago emateko, haurtzaroaren kultura kontuan hartuko duen parte-hartze kultura errealtate bihurtzeko. Besteak beste, helduok ez gaudelako ohituta haurrei eta nerabeei entzuten.

Haur eta nerabeek beraiek ere sarri iritzia emateko gaitasunik ez dutela uste dute, parte hartzeko nahikoa informatuta ez daudela uste dute edo, besterik gabe, beren buruari betoa jartzen diote; helduok entzungo ez diegulakoan; edota helduok entzun nahi duguna esatera mugatzen dira, gure onarpenaren bila.

Haurrak oso adimentsuak dira eta badakite helduei entzun nahi dutena esaten. Bere pentsamenduen sakonera iristeko baimena lortu behar da. Espazio zaintzaile bat sortu behar dugu, non ideia guztiak baliozkoak izango diren. Epaiketarik gabeko espazioa. Eta harremanak izateko moduak eraiki behar ditugu heldu eta haurren artean, loturak sortu, euren benetako erantzunetara iritsi ahal izateko.

Entzutea ez da ahozotasunera mugatzen. Hurrek gorputz guztiarekin hitz egiten digute, eta helduok ere gorputz osoarekin entzutea lortuko bagenu, hurrek esaten digutenaren atzean dagoen benetako nahia interpretatzen ikasiko genuke.

Helduok hurrekin gaudenean gure presentzian arreta jartzea nahi genuke. Hurrekin gaudenean gorputzean eta buruan egoten jakitea. Begietara begiratuz entzutea, aurrean duguna berezi sentiaraziz, pareko. Haurrari sentiarazi nahi diogu badela zerbait interesgarria guretzat.

Presente egoteak ez du esan nahi inolaz ere menpekotasuna sortzea. Bi gauza oso desberdin dira, eta heldu moduan errebisatu beharko genuke gure presentziarekin menpekotasuna sortzen ote diegun haurrei. Ez dugu nahi haur eta helduen artean sortzen dugun loturaren oinarria helduarekiko menpekotasuna izatea.

Heldu moduan, haurren benetako nahien eta oinarrizko beharren artean bereizten ikastea dagokigu. Euren nahien atzean ezkututzen den beharra identifikatzen ikastea. Hori errazagoa izaten da galdera egokiak eginez, behaketaren bidez, rol jolasak eginez... "Zer nahi duzu, zer gustatuko litzaizuke?" moduko galderak ekiditen baditugu, parte-hartzea eskaera zerrenda bat egitera ez mugatzea lor dezakegu. "Zer behar duzu? Behar horietatik zeintzuk dira kolektiboak? Zertan inplikatzeko prest zaude?" izan daitezke parte-hartze teknika ezberdinen bidez erantzun beharreko galderak.

Erosoa bada helduontzat, ez gara ondo egiten ari. Hurrekin lan egiteak eskemak haustera behartzen baikaitu. Haurrak gatazka iturri dira; helduon behar eta erosotasunera pentsatutako herrietan ez dira ondo bizi. Herriak ez dira haien beharretatik abiatuta diseinatu.

Haurrak entzuteak eta beraiekin lan egiteak oso egoera deserosoak sortzen dizkigu. Ez badigu ondoeza eragiten edo kontraesanik sortzen, horrek esan nahi du ez dugula asmatu haurren mundu sekretura heltzen.

Benetako prozesu parte-hartzaile baten ondoren haurrak hazi egiten dira. Ez dira prozesuaren hasierako haur berak. Prozesua ahalduntzailea izan behar da haurrentzat, emantzipatzailea. Baina, horretarako, helduok ere aldatzeko prest egon behar dugu.

Bizi garen jendartean kultura helduzentristaren ezaugarriak gorai patzen dira, eta haurtzaroaren kulturarenak gutxiesten. Horren kontzientzia hartu eta iraultzeko prest egon ezean, haurren parte-hartze azalekoa sustatzen jarraituko dugu.

KULTURA HELDUZENTRISTA vs. HAURTZAROAREN KULTURA	
Heldutasuna	Heldugabea
Perfekzioa	Inperfekzioa
Adinekoa	Adingabea
Esparru publikoa, komuna	Esparru pribatua, intimoa
Ikus daitekeena	Ikusezina
Konpetentziaduna, eskumenduna	Ezgaia, inkompetentea
Soziala	Pre-soziala
Osatua	Osatugabea
Oraina	Etorkizuna
Arrazionala	Irrazionala
Kultur eremua	Naturaren eremua
Autonomia	Menpekoa
Lana	Jolasa
Subjektua	Objektua
Aktiboa	Pasiboa
Gaitasunduna	Gaitasungabea
Autoritatea	Obedientzia
Sendotasuna	Zaugarria

(Taula 1: Martinez, M. (2023). Enclave, evaluación y enfoque de derechos humanos.)

c. Haurren parte-hartzea eskubide gisa sakontzeko eta zabaltzeko planteamendua

Haur eta nerabeen eskubideak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean (HEH) guztiz zehaztuta daude. 10 urtez landu zen, hainbat gizarte, kultura eta erlijiotako ordezkarien ekarpenekin, eta 1989ko azaroaren 20an onartu zen giza eskubideen nazioarteko itun gisa.

Haurrak eta nerabeak herritarrak dira; herritar gazteagoak, esperientzia gutxiagokoak eta pertsona helduek baino premia larriagoak dituztenak agian, baina horrek ez du esan nahi helduen ondarea direnik. Hitzarmenaren artikulua

bakoitzean haurrak, adina, egoera, jatorria, sinesmena edo generoa edozein izanik, eskubide osoko pertsona gisa hartzeko promesa eta konpromisoa dago.

Haur eta nerabeen parte-hartzeari erreferentzia egiten dioten artikulua honako hauek dira:

12. artikulua

Estatu kideek iritzi propioa izateko gai den haurrari iritzia askatasunez emateko aukera bermatuko diote, haurrari eragiten dioten arazo guztietan, haurraren adinaren eta heldutasunaren arabera.

13. artikulua

Haurrak adierazpen askatasuna izango du, muga politikoak kontuan izan gabe; eskubide horren barruan sartuko dira edozein ideia edo informazio bilatu, jaso eta zabaltzea, bai ahoz, idatziz edo inprimakiz, modu artistikoan edo haurrak aukeratzen duen edozein modutan.



14. artikulua

Haurrak pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna izango du, eta estatu kideek hori errespetatuko dute.

15. artikulua

Estatu kideek haurrari aitortzen dizkiote elkartzeko eta bilera baketsuak egiteko askatasunerako eskubidea

17. artikulua

Informatua izateko eskubidea. Estatu kideek eginkizun garrantzitsua aitortzen diete komunikabideei. Horren harira, estatuei dagokie haurrek informazioa eta

materiala (nazionala eta nazioartekoa) jasotzeko duten eskubidea zaintzea, batez ere informazio eta material horien helburua bada haurren ongizate sozial, izpiritual eta morala, eta osasun fisiko eta mentala sustatzea. Xede horrekin, estatu alderdiek

a) Komunikabideak bultzatuko dituzte haurrentzat gizarte- eta kultura- interesa duten informazio eta materialak zabal ditzaten.

b) Nazioarteko lankidetzak sustatuko dute, Estatuko eta nazioarteko hainbat kultura-iturritatik datozen informazio eta material horiek ekoizteko, trukatzeko eta zabaltzeko.

c) Haurrentzako liburuen ekoizpena eta zabalkuntza sustatuko dituzte.

d) Talde minoritario bateko edo talde indigena bateko haurren hizkuntza-premiak bereziki kontuan hartzea bultzatuko dituzte komunikabideak.

e) Haurrak beren ongizaterako kaltegarriak diren informazio eta material guztietatik babesteko jarraibide egokiak egitea sustatuko dute, 13. eta 18. artikuluetako xedapenak kontuan hartuta.

Orain arte, haurren parte-hartzea, batez ere, 12. artikuluan jasotzen dena mugatu izan da. Hau da, entzunak izatearen eskubidea sustatzera. Kasurik onenetan euren iritzia kontuan hartzea iritsi izan gara.

Parte-hartzean sakontzen jarraitzeko, parte-hartzea haurren hitza entzutek haratago joan behar da; gainontzeko artikulua kontuan hartu eta haurren parte hartzeko eskubidea zabaltzea baita erronka; haurrak eta beren beharrak kontuan izango dituen jendartea eraikitzeko, haurrak subjektu politiko moduan antolatzeko baldintzak sortzeko.

Horretarako, parte-hartze sozialaren eta protagonikoaren artean bereiztea interesgarria da.

PARTE-HARTZE SOZIALA			
Informazioa Sentsibilizazioa Ikaskuntza (13/17 artikulua)	Sustapena (OHAR OROKORRA 12)	Antolakuntza Haurren antolaketa autonoma (15. artikulua)	Intzidentzia Eraldaketa (OO 12)
Iritzia Komunikazioa Adierazpena (12/14 artikulua)			
PARTE-HARTZE PROTAGONIKOA			

Iturria: Cabrerizo Sanz, L.; Martínez Muñoz, M.; Zelaya Paredes, M.; García López de Rodas, M.; Andrés-Candelas, M. (2018) «Guía para promover la participación infantil y adolescente en la ciudad de Madrid. Madrid.» Haurren eta Familiaren Zuzendaritza Nagusia. Madrilgo Udala.

Partaidetzaren esperientziak ez badakar umeen lidergo ariketarik, ez dugu ikuspuntua aldatzen. Eta guk paradigma aldatzea nahi dugu. Haurrak komunitatearen egunerokoan parte-hartzaile izatea nahi dugulako. Horretarako, subjektu moduan antolatze beharrezko baliabideak eskaintzea izango da helduon eginkizuna.

Sustatzen ditugun parte-hartze prozesu eta espazioek dimentsio emantzipatzaileak ez baldin badaukate, haurren parte-hartze sozialera mugatuko gara, eta ez dugu komunitatea eraldatu. Haurren parte-hartzeak haien eguneroko bizitza eraldatu nahi du, geu (helduok) eraldatu nahi gaitu; jendartea eraldatzeko.

Helburua izan behar da haurrak euren eskubideak bermatuko dituzten subjektu politiko moduan egituratzeko baldintzak sortzea. Behetik gorantz, haurrek euren egunerokotasunetik, euren eskubide guztiak bermatuko direlako ardura har dezaten.

Haurrei subjektu politiko moduan autoantolatze baliabideak eskaini behar dizkiegu. Ikuspegi intersektional batetik, dituen eta ez dituen pribilegioen, eta eragiten dituen edo sufritzen dituen zapalkuntzen kontzientzia izango duen agente aktibo gisa egituratzeko.

4. HAURREN PARTE- HARTZEAK DITUEN ONURAK ETA HAURREN PARTE HARTZEAK JENDARTEAN DITUEN ONURAK

a. Haurra subjektu politiko moduan ezaugarritu eta egituratu

Ezintasunak ezintasun, ezin dugu ahaztu parte-hartzeak, eskubide bezala, atea zabaltzen diela adinagatik boto bidez jendartean parte hartu ezin dezaketen pertsoneri. Modu horretan, parte-hartzean trebatzen diren haurrek erantzunkidetasun handiagoa garatzen dute beraien bizitzan inguruko gaitan. Beraiengan konfiantza garatuz, autoestimua eta autonomia indartzen dira. Sentitzen dute beraien iritziak baliogarriak direla eta, bakarra den esperientzia eta ezagutza dituztenez, jendarteko hainbat espazio eta gunetan ekarpenak egin ditzaketela. Jendarteko partaide izatearen sentimendua sustatzen da, eta horrek komunitatearekiko erantzunkidetasun sentimendua indartzen du. Herriarekiko lotura eraikitzen da, atxikimendua. Haurren inizatibari balioa ematen zaio, eta helduon lidergoa partekatze eta botera banatzeko ariketa martxan jartzen da.

Gainera, parte-hartzean trebatzen diren haurrak babestuago daude, beraien kabuz adierazteko gai direnek eta informatuta daudenek mehatxuei hobeto aurre egin diezaiekete, laguntza eskatzen dakite eta arrisku egoerak saihesteko prestatuago daude. Aldaketak sustatzeko gaitasuna garatzen dute eta kultura demokratikoan hezten dira (ikuspegi desberdinak entzun, aukera desberdinak aztertu eta erabaki-hartzea elkarbanatu...).



Beraz, haurren benetako parte-hartzea sustatzeko, ez da nahikoa izango soilik haur eta nerabeen eskubideak aldarrikatzea; parte-hartzea bera praktikara eramatea ezinbestekoa izango da, horretarako testuinguru egokiak sortuz. Parte hartzen ikasteko modu bakarra baitago: parte hartuz.

Haurrekin parte-hartzea sustatzerakoan argi izan nahi dugu ortzi-muga; haurrak subjektu politiko moduan egituratzea, alegia. Haurrek kontzientzia hartzea, dagozkien eskubideez eta adinarengatik jasaten duten zapalkuntzaz. Horren aurrean, autoeraketan eta autogestioan trebatzen hastea izango da helburua. Izan ere, bizi diren jendartean subjektu moduan artikulatzeak, ingurunearekin konektatzeak, herritartasunaren kultura berri bat ekarriko die. Elkardependentzian bizi garenaren kontzientzia hartu, euren kasuan adinaren aldagaiak haratago, bestelako aldagaiek eragiten dituzten pribilegio/zapalkuntza egoerez jabetu, herriaz jabetzeko, herritar sentimendua garatzeko. Eta ez etorkizuneko herritarraren sentimendua, orain eta hemen bizi den herritarraren sentimendua baizik.

Horretarako guztirako, gakoa izango da haurrekin parte-hartzea sustatzeko garaian helburuak beti subjektuaren ikuspegitik jartzea. Hainbat gai landu ditzakegu, hainbat prozesu parte-hartzaile planteatu ditzakegu; baina helburua beti zuzendu beharko dugu haurrak subjektu politiko moduan egituratu eta ezaugarritzera. Bestela, ez da eraldatzailea izango ez haurrentzat, ez helduontzat, eta ezta jendartearentzat ere.

Horretarako, haurren parte-hartzeak protagonikoa izan behar du. Haurrak izango dira protagonista. Gure komunitateen egunerokoaren parte bilakatu behar ditugu. Funtzioak/ardurak eman behar dizkiegu egunerokotasunean parte-hartzaile izan daitezen, eta parte-hartzea ez dadin prozesu parte-hartzaileetara mugatu.

Ezin dugu ahaztu, hori posible izan dadin, haurren gainontzeko eskubide guztiak ere beteta egon behar dutela; alferrik ariko baikara haurren parte-hartzea sustatzen, gure herrietan haur bakar bat goseak dagoen bitartean, etxegabetze bat jasaten ari den bitartean edota tratu txarren biktima den bitartean. Parte-hartze eskubidea haurtzaroaren gainontzeko eskubideekin batera landu behar da, eskubideak banaezinak baitira. Horrek berriz ere mahaigaineratzen du politika publikoen zeharkakotasuna.

Orain arte, helduok haurren eskubideak bermatzeko egin behar genuenaren inguruko lanketa sustatu da. Guk beste logika bat lantzea

proposatzen dugu. Zer egin dezakegu haurrak eurek har dezaten euren eskubideen ardura? Nola bihurtu haurrak euren eskubideen subjektu?

Baldintza parte-hartzaile protagonikoak, eraldatzaileak eta askatzaileak sustatuz.

Horretarako, Oinheritik proposatzen dugu parte hartzeko espazio eta denbora ez helduzentristak sortzea, kalitatezkoak eta iraunkorak izango direnak. Horietan haurrak izango dira protagonistak eta haurtzaroaren kulturako beharrak errespetatuko dira. Helburua izango da espazio horietan baldintza egokiak sortzea, haurrek kolektibo gisa dauzkaten interes komunen kontzientzia hartzeko, subjektu moduan artikulatzeko, eta kolektiboki euren buruen ordezkari moduan egituratzeko.

Haurren interes eta eskubideak sustatzen dituzten espazio sozial horiek ahalik eta autonomoenak izan beharko dute, eta haurrek beraien beharretara moldatzeko modukoak. Helduen presentziadun espazio eta denborak izango dira, baina inolaz ere ez, helduekiko menpekotasunezkoak edota gainbabestutakoak. Helduon zeregin nagusiak izango dira behaketa, dokumentazioa eta narrazioa.

Botere harremanak haurtzaroaren alde iraultzeak ez du esan nahi "haurrak erdigunean jartzea"; baiziketa haurrak eta helduak, komunitate beraren parte diren heinean, elkar aintzat hartzea, aniztasunean eta ekitatean; haurrak komunitateko parte aktibo bilakatzu, eta euren egunerokotasunean eragiten duten erabakien parte izateko eskubidea bermatuz. "Guri buruz ezin da ezer erabaki gu gabe". Gu horretan azpimarra jarritz, kolektiboki antolatze gaitasunean sakonduz.

Heldu gisa babestu behar duguna haurren eskubideak dira, eta ez haurrak. Babes eta kontrol neurrietatik, euren gaitasunak sustatzeko neurrietara pasa behar dugu.

b. Parte hartzeko kultura berri bat sortu

Planteamendu honek, parte hartzeko kultura berri bat sortzeko aukera emango digu.

Gutako bakoitzak parte hartzeko kultura oso zehatz bat daukagu. Gure kasuan, adin, arraza, nazionalitate, klase sozial eta genero jakin batzuen begiradatik eraikitako parte hartzeko kultura bat. Ondorioz, parte hartzeko

kultura horretan, adin, arraza, nazionalitate, klase sozial eta genero jakin batzuetako pertsonak bakarrik sentitzen gara eroso. Eta justuki horregatik kostatzen zaigu hainbeste bestelako adin, arraza, nazionalitate, klase sozial eta genero batzuetako herritarrak parte-hartzera erakartzea.

Egiteko, pentsatzeko, sentitzeko modu berriak barnebilduko dituen parte-hartze kultura berri bat sortu beharrea gaude, betikoak ez diren ahotsak/gorputzak gehitu nahi baldin baditugu.

Planteamendu honetan, haurren ahotsek/gorputzek helduon parte-hartze kultura kutsatzen uztea proposatzen dugu; haurrak helduen moduetan parte hartzen jartzea baino, helduak umetzea helburu izango duen parte-hartze kultura berri bat sortzeko elkarrekin. Jakina, horrek eskatzen digu helduon parte-hartze kulturaren adinaren aldagaia zalantzan jartzea, baina baita arrazarena, nazionalitatearena, klase sozialarena eta generoarena ere.

Beraz, hurrekin parte-hartze kultura berri bat eraikitzerakoan, bestelako aldagai horien guztien gurutzaketek kutsatutako parte-hartze kultura berri bat sortzeko aukera zabaltzen zaigu; hainbat aldagairen gurutzaketak gorpuzten dituzten pertsonak erosoago sentituko diren parte-hartze kultura berri bat eraikitzeko aukera; egungo jendartearen konplexutasunari eta denon neurrira egindako jendarte bati egokiago erantzungo dion parte-hartze kultura zabalagoa eta askotarikoagoa.

ERREFERENTZIAK

- Marta Martinez, <https://www.enclavedeevaluacion.com/quienes-somos/>
- "Haurren hiria" Francesco Tonucci
- "Manual de guerrilla urbana. Para niñas y niños que quieren conocer y defender sus derechos" Francesco Tonucci
- "La oreja verde de la escuela" Carmen Diaz Navarro
- "Pedagogia de la vida cotidiana y participación ciudadana" César Muñoz
- Interseccionalidad. Desigualdades, lugares y emociones. Maria Rodó-Zárate
- Dialnet-Pedagogías Queer-735790.pdf
- El consentimiento (Para niños y niñas). Como poner límites, pedir respeto y estar a cargo de ti mismo.pdf
- Haurren eskubideen hitzarmena
- El servei comunitari per a l'alumnat de secundària obligatòria. Una acció educativa en el marc curricular. Generalitat de Catalunya, Departament d'Ensenyament.
- Guía práctica de aprendizaje-servicio. Roser Battle.